

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresaren balioa kualitatiboa da honen erabilerraztasunarengatik, lana erraztearengatik, arriskuen murrizketarengatik eta eskuragarritasunarengatik. Aurrera eraman nahi dugun proiektu honekin hainbat arazo konpondu nahi ditugu. Azken urte hauetan, turismoaren igoerarekin geroz eta zailago bait da aparkalekua bilatzea Donostian. Horregatik, aparkalekuak egoki antolatuak ez daudela ondorioztatu genuen. Eraman nahi dugun proiektu honekin hiritarrei denbora aurrezte, aparkalekua segurtatzea eta gutxiago kutsatzea lortu nahi dugu.

Hasteko, gure proiektuaren helburu nagusia denboraren aurrezpena da. Horretarako, aplikazio honek etxetik atera baina lehen aparkalekua aurkitzeko aukera ematen dizu; horrela, zure helmugara iristerakoan aparkatzeko lekua izango duzula zihurtatzen dizu. Bestetik, aparkatzeko lekua ezagutzen ez duzunean hirian zehar aparkalekuaren bila ibiltzeko beharra daukazu; beraz, erregai kantitatea igo egiten da eta honekin batera gehiago kontsumitzen duzu. Halaber, zure helmuga ezagutzen duzunean gutxienekoa kutsatuko duzu.

Prezioari dagokionez, aplikazioaren deskarga dohainik izango da eta kontuan izanda bezeroek zer garraibide mota erabiltzen duten prezio desberdinak ordaindu beharko dituzte. Aplikazioaren disenua oso sinplea eta ulerterraza izango da eta zerbitzuaren disenua, aldaketa bat ekarriko du Donostian. Motorren aparkalekuak lerro batzuen bidez bereiztuko dira; aparkaleku bakoitzaren hasieran, lurrean, ukipen sentsoare bat jarriko da aplikazioan, lekua libre edo hartuta dagoen adieraziko duena. Bestetik, kotxeen aparkalekuetan ukipen sentsoarea motorren antzera funtzionatuko du, ezberdintasun handiena pibote bat edukiko dutela, zein aparkalekua libre dagoenean igo egingo dena beste kotxe batek ez aparka dezan. Azkenik, gure enpresa udaletxearekin lan egingo duenez arriskuaren murrizketa bat egongo dela zihurtatzen dugu.

Ondorioz, bezeroek gure zerbitzua erabiltzea erabakiko dute kalitate-prezio balantze bat eginda aukera onena delako. Gainera, gure lehiakideekin alderatuta gure enpresak hainbat abantail eskaintzen dituela uste dugu.